“Vistos los informes favorables del Arquitecto Municipal y de la Técnico de Administración General de Urbanismo y Servicios, se propone aprobar, con carácter inicial, el convenio urbanístico entre el ayuntamiento y Ottitta Leitzarain para implanta la actividad de hospedería y restauración en el edificio de la antigua central de Otita.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Usandizaga andreak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak,



hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsaldeon. Dakizuen bezela eta berak esan duen bezela gai hau aurreko agintalditik dator eta ezagunak dira eta behin baino gehiagotan planteatu ditugu gai honen inguruan zalantza desberdinak, denbora pasa da eta zalantza hauek ez dira argitu. Egia da, 2019ko udaberriko hirigintzako batzordean, esan zitzaizela dokumentazioa eta ikerketa hoiek ekartzen bazituzten onartuko zitzaizela, baina badaude oraindik zalantza asko.

“Zalantza hauek bai planteatu ziren proiektua ezagutu zen une hortatik eta jarri ziren mahai gainean. Ez bazen urratsik eman horregatik izan zen eta horregatik atzeratu da hainbeste. “Agintaldi hontan itzultzen bagera, orain dela hilabete batzuk eraman zen hirigintzako batzordera eta hor ere planteatu genitun hainbat zalantza. Zalantza haundietakoa izan zen permutaren gaiarena eta honekin bai eskatu genuen atzeratzea eta orain ikusten dugu permuta hori ez dagoela, aipatu ziran arrazoi ezberdinak hori kentzeko, baino horrek erakusten du gaia ez dagoela behar bezela landuta, holako aldaketak ematen ari didanez.

“Gure zalantzetara bueltatuta, esan behar dugu hasieratikan mahai gainean jarri zen bezela eta proiektua aurkeztu zenean, txosten baten jarri zen bezela, solbentzi tekniko aldetik defizientzia asko ikusten ziren. Hori da eskatu zitzaiona, gauza bat da jabea izatea eta, bestea, kudeatu ahal izatea eta jabe honi eskatu zitzaion aurreko agintaldian izan zen aholkularitza tekniko batekin etortzea eta, hor izan zen harremana moztu zenean eta horregatik luzatu da hainbeste, ez zelako hori oso ondo hartu baino, gai honen inguruan berdina pentsatzen jarraitzen dugu.

“Bestetik, aurreko batzordean ere aipatu genuen, dago ikuspegi estrategiko falta, badakit gaia landu dela eta sail desberdinetatik eraman dela, baino, ikusten da beharra Leitzarain Bisitarien Etxea eta bueno, gune honetako funtzioak aztertzea, duplizitaterik ez sortzeko eta ez hori bakarrik, funtzio asko bateratzeko ondo aztertu behar da gaia eta, badakigu landu dela baino uzte dugu hobeto aztertzekeko puntu asko daudela.

“Ikuspegi estrategiko honen faltan, beste puntu potolo bat ikusten duguna da ez dagoela plan bateratu bat turismo eta ingurumen aldetik.

“Badaude gauza batzuk eraman direla enplegutik, aparkalekuaren gaia bezela. Badakit sail desberdinak, partidu desberdinak, lan talde desberdinak eta ikusten dugu aurten, ez dakit zergatik, ez da aktibatu edo desagertu da, beharrezkoa ikusten dugu gai lantzeko eta honen hausnarketa bat emateko.

“Uste dugu beste gai askotan esan dugun bezela, parte hartze hau, eragile desberdinen eta ahalik eta gehiago herritarrena, beharrezkoa dela, horrelako gai bat mahai gainean edukita.

“Tirolinaren gaia landu zenean ere esan genuen eta, honekin berdina esaten dugu, eragile guztien parte hartzea alde batetik eta herritarrena bestetik, beharrezkoa dela.

“Badakigu sail desberdinak hartu dutela parte eta teknikariak eman dutela iritzia baino, guretzak ez da nahikoa, iruditzen zaigu prozesuak askoz parte hartzailegoa izan beharko lukela.

“Ikusita dauzkagun zalantza hauek eta ,aurreko agintaldian planteatu genuen gabezi horiek ikusten ditugula, gure iritzia ez da aldatu.

“Ez dugu esaten proiektuaren kontra gaudenik, benetan aterpetxearekin eta gune interesgarria izan daiteke herriarentzat, baino, bai uste dugu aurrera eramateko baldintza batzuk bete behar direla.

“Dauzkagun zalantza hauekin, uste dugu ez direla betetzen eta horregatik, ezin dugu baiezkota eman eta gai honetan abstenituko gea.”

Berrero ere, Verdasco jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Por intentar responder a las cuestiones que ha comentado. En cuanto a la permuta, efectivamente se ha retirado del convenio porque se realizó una tasación y se excedía del porcentaje que había de una valoración a otra y jurídicamente no se podía realizar. Evidentemente se tuvo que retirar del convenio.

“Respecto a la solvencia técnica que ha mencionado, este convenio es el punto de partida para iniciar una tramitación urbanística y tendrá que empezar con una elaboración de un plan especial que tendrá que ser en este caso la mercantil la que tenga que elaborarlo, evidentemente con la supervisión



y el ayuntamiento tendrá que informar al respecto.

“Es evidente que si esta mercantil que ha apostado por esta actuación, entendemos que contara con los medios para realizarlo.

“Hablabas también de duplicidades en el convenio. También se recoge el compromiso para que no se produzcan esas duplicidades y que haya una coordinación de las diferentes actividades a realizar tanto en el centro de visitas como la mercantil en su edificio.

“En principio, es el punto de partida, ahora el siguiente paso es poner en marcha los instrumentos urbanísticos para la nueva ordenación del ámbito lo que viene siendo un plan especial y una evaluación ambiental estratégica que tendrá que recoger lo que viene siendo la ordenación del ámbito, pero también tendrá que garantizar y proteger los valores medio ambientales del entorno.

“Además, tenemos que recordar que estamos hablando de una zona que es de especial conservación y que nos obliga a todos a cumplir una serie de criterios y normativa medio ambiental que es de obligado cumplimiento para todos, tanto para el ayuntamiento como para la mercantil.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Desde nuestro punto os vamos a abstener. Entendemos como espacio protegido que es, se va a tener en cuenta ese impacto medio ambiental, pero no sabemos hasta qué punto puede ser bueno o no para la zona. Como no tenemos muy claro al leer la documentación y tampoco está desarrollado el plan, ya sabemos que es porque es inicial, pero eso es como la pescadilla que se muerde la cola. Entonces como no lo tenemos claro, nos vamos abstener.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Nik matizatu nahiko nuke, Usandizaga andreari batez ere. Ematen du txaketa aldaketa egin dugula lehen oposizioan zegoena orain gobernuan jarri eta orain gobernuan zegoena oposizioan jarri. Efectivamente, garai baten proiektu hau edo tankerako bat ateratzeko zeuden sustapena edo bultzada hori dena orain prozesu partaideetan hartzailetan diluitzen da. Badirudi lehen beharrezkoa zena edo bultzatu behar zen hori, orain ez da nahikoa, hitz egin behar da, prozesu parte hartzaileak eman behar...oso ondo. Aurreko legealdira ez naiz joango, borroka eta liskar dezente izan ditugu eta gauden ordezkari desberdinok. Bai bermatu behar den gauza bat eta, uste dut hirigintza batzordean behin eta berrero atera dena ingurune natural berezi batetan gaudela eta udalak nolabait eduki behar duela berme bat hor egiten den jarduera hori arautzeko. Verdasco zinegotzi jaunak esan duen bezela, konbenio horrek bide ematen diola horri.

“Hemen turismo mailaz hitz egin da, ez dezagun desitxuratu errealidadea. Aurreko legealdian jarduera turistiko guztia, tirolina bera, zuk aipatu duzu, Zulueta jaunak sustatzen zuen enplegutik, “made in” Zulueta.

“Garrantzitsua da hori ere mahai gainean jartzea, batzuk jarri dugu medalla edo inagurazioa baino hor lan sakon bat egonda aurretik egindakoa eta errekonozitu behar dago. Uste dut, hirigintzatik plan berezia kudeatu den bezela edo konbenio hau kudeatu den bezela, jarduera hirigintzatik ematen direlako. Aurreko legealdian horrela egiten zen enplegutik turismo sustapena eta hirigintzatik jarduera, plan bereziak eta tramitazio urbanistikoak. Beraz, ez dakit non dagoen aldea, aldatu den bakarra gobernuan edo oposizioan daudenak lekuz aldatu generala. Honestoak izan behar dugu, hau lehen horrela bazen, orain ez da txarra izango eta, alderantziz lehen eskatzen bagenuen natura eta inguru naturala honek behar dituen berme guztiakin, jarduera hau arautzea orain ere zorrotz edo, berdina izan behar dugu gutxienez, hori gogoeta bezela.”

Jarraian, Zulueta jaunak, EH Bilduko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, behin agintaldi honen hasieran, maila altuko teknikari batek esan zidan “obsesio hitza”. Udal gobernu honek zurekiko obsesioa dauka, guk parrez hartzen genuen, gero bigarren teknikari batek gauza berdina esan zidan. 2 teknikarik gauza bera esaten dutenean eta ondoren ikusi duguna ikusita, uste dut arrazoi puntu bai dagoela horretan eta, gauza hoiek landu egin behar dira, ez dira onak eta horrek sortzen dute gerra eta sortzen dute hainbat arazo.

“Berriz ere, alusiotatik. Aurreko agintaldian zergatik ez zen eraman aurrera proiektu hau?”



Promotoreak zergatik hautsi zituen harremanak udal gobernuarekin? Ez ginelako ados. Promotore horrek harremanak hautsi baldin zituen udal gobernuarekin eta hasi baldin bazituen interlokuzioak beste eragile batzuekin, hain zuzen, izan zen ikusi zuelako ez zegoela adostasuna.

“Berriro diogu, bere garaian defendatu genuen jarduera bat egin zitekeela bertan eta jarraitzen dugu esaten, Usandizaga andreak, esan duen bezela, jarduerarekin guk ez dugu arazorik. Arazoa dugu, promotore horrek, horrela akreditatu genuelako ez zuelako solbentzi tekniko nahikoa horrelako jarduera bat emateko eta gure ustez garrantzitsua zen eta, ez zuelako inongo borondaterik elkar lan horretan aholkularitza tekniko baten eskutik etortzeko eta proiektuan eragiteko. Hori izan zen, hausturarako eman zen arrazoi nagusietako bat.

“Turismo maila. Horretan bai ez zinela inoiz egon baino funtzionatzen zuen maiztasun batekin eta bertan elkartzen ginen alderdietako kideak, bertan zeuden merkatariak, ostalariak, arrantza masterretik agertzen ziren, kultur teknikariak zauden ere..nahi geniolako beste zera bat eta sustapeneran arloan. Bertan hitz egiten zen, eta bertan egin zen plan bat eta plan horren barruan zegoen egin beharreko gauzak turismo mailan bertan ferrata bidea eta, ez da “made in” Zulueta, aurreko udal gobernuak egin zuen proiektu bat, begi honez ikusten dugu, ez dugu inoiz horretaz inoiz ukatu, ez ditugu konkiseko eta horretako fantasmadak egiten, ez genuke inoiz horrelako mamukeri bat egingo. Guk modu apalago batean egiten dugu, baino, bai proiektu hori sustapenean, bai, hartu genuen parte. Bertan plan bat egin nuen, plan horren baitan zegoen alojamenduaren gaia eta hor kokatzen genuen horren garrantzia. Horrek zer esan nahi du? Edozein preziotan onartu behar dugula orain promotore batek jartzen dizkigun baldintzak? Guk esaten dugu edozein preziotan ez dula onartuko, zergatik? Ikusten dugulako babes bereziko leku bat dela, partzela publikoa pribatizatu egin beharko dela eta, hori egin behar bada, oso ondo egin behar da. Hori da esaten duguna, hain arraroa ahal da, hori esatea, gauzak oso ondo egin behar dira. Nik benetan esaten dizuet, zuek duzue arazo potolo bat eta, arazo potolo hori da gobernantza eredu eta, gaur hemen ikusi dugu, baino, aurrekoan ere ikusi genuen Agirialaiko bizilagunekin eta hurrengo izango da gai honekin ere. Partehartzearekin arazo daukazute, partehartze politiko eta sozialarekin eta, hori ez da laburbiltzen kutsa batzuk jarrita eta ea zer proposamen egin nahi duzun eta bertan bozkatu eta ze partehartzaileak geran. Ez, partehartzaile politiko eta soziala da herriaren norabidean herriko eragile eta pertsona guztiak edo parte hartu nahi dutenak inbolukratzea horretan eta tirolinaren gaiarekin ikusi dugu kalapita sortzen dela, badaudela sensibilidade desberdinak eta, horretaz ikasi ezer ez, iraindu egiten ditugu, populistak deitzen ditugu eta ez dakit zer gehiago, iritzi artikulua infame batean eta ez dugu ezer egiten eta orain ere berriro ere horretara goaz.

“Guk esaten duguna da, ez gaude ez jarrera baten eta ez bestean. Esaten duguna da, jarduera bai. Baldintzatua eta berme batzuekin. Uste dut, Goenaga Egibar jaunak hori ulertu beharko lukeela zeren bestela beste arazo batetaz egongo gineteke hitz egiten.

“Gelditu ditzagun zuen gabeziak eta ez proiektatu gure gain. Gabezi bat baldin baduzue gobernantza ereduarekin, gabezi batzuk baldin badituzue sortzen zaizkizuen su horiei aurre egiteko, aurre egin.

“Gaur, hemen, egin duzutena ekidi zitekeen, EHBilduk eskatu zuenean puntuak bilerekin izan behar dira. Ez duzue egin, eta gaur hemen atzera egitea eta badirudi gure akatsa edo gure errua dela. Puntu honekin berdina, atzera botatzea aurreko agintaldian orduan bai, orduan ez. Guk, baldintza berdina jarri genituen eta promotore hori mahaitik altxa zen, joan egin zen eta hauteskundeak amaituta berriro hartu zuen harremana udaletxearekin.

“Gurekin ez da berriz ere elkartu baina gure babesa nahi badu guk konbentzitu behar gaitu eta, gaur gaurkoz, ez gaitu konbentzitzen. Otita badakigu oso maitatuta dela herritarrengandik, badakigu sensibilidade handi duela horren baitan eta, orain zuek partzek hori pribatizatzea zoazte. Esaten dugu, hori egiteko, kontuz. Kontuz, gero sortuko dira arazoak eta gero orain ezingo duzue esan “made in” Zulueta, komodin hori agortuko zaizu, beste bat bilatu beharko duzu, konkisekoa edo “la isla de los famosos” ekarri beharko duzu. Ez dakit nondik joko duzun, baina egia da, irrikitan gaudela hori ikusteko. Aurre egin sortzen zaizkizuen arazoei, zuen argudio propioekin, gezurrak eta mamuak





heredatu beharrean.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko zinegotziak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Alusioagatik. Ez nuen pentsatuko horrenbeste minduko zituenik komentarioak, eh.... Reafirmatzen naiz esan dudan guztian. Nik, egiten badut proiektu hori, da estrategia baten menpean antolatutzen dudan alojamendu turistikoa. Zuk, egiten baduzu, ordea, pribatizazioa da.

“Hortxe gaude, hori da gure dikotomia eta gure miseria. Ez dugu bilatzen interes orokorra, baizik eta, nork egin duen.

“Hau, orain duela 3 urte egin izan bazen, esan duzu, estrategia baten menpean zela eta erantzuten ziola nolabaiteko plan integral bat ematen ziola demanda konkretu bati eta, guk egiten ari garala berdina, baino, kasu honetan guk egiten ari garena pribatizatzea da. Horrek erreflejatzen oso ondo norberaren posizioa eta nik uste dut, interes orokorra lehenetsi beharko dela.

“Beti xextra politikan bukatzen dugu beti eta, ez da eredugarria izango seguruenik, baino, uste dut zintzoak izan behar dugula. Orain dela 3 urte gauza bat ona bazan, orain errebindikatu behar dugu hori, orain ona izan daitekela, horretarako bermeak jarri behar dira eta, hitzarmen horrek jaso behar ditu, jasotzen dituen moduan, udalaren kontrol harramientak. Zertarako? 3. bat tortzen denean jardueren bat, leku batetan, leku berezi honetan ezartzera, kontrol neurriak ezarri ahal izateko eta, udaletxe bezala, erakunde bezela bermeak izateko jarduera hori nola egingo, zer modutan eta mugak jartzeko. Beste edozein jarduerari egiten diogun bezala, bereziki leku sensible honetan, are eta, zorrotzago.”

Berriro ere, Zulueta jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Duela 3 urte, esan genuen orain esan dugun berdina eta duela 6 urte esaten dugun berdina, jardueraren alde gaude, uste dugu interesgarria dela eta sustatu beharrekoa, baina ez edozein baldintzetan eta solbentzia teknikorik gabe ez. Berdina da, esandakoa orain arte. Baietz esan izan banegu dagoeneko eginta egongo litzateke. Hori da ezberdintasuna. Zergatik ez da egina? Zergatik dago tirolina egina? Zergatik zegoen bisitarien etxea martxan? Zergatik dago guti hori eta horretan, karrik horrek ez zuen ezer aurreratu? Uste dut oso garbi geratzen dela gaia.”

Parte-hartze gehiago izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andreak eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin, honakoa erabaki du:

1.- Onartzea, hasierako izaeraz, Andoingo Udalaren eta Ottitta Leitzaran SL merkataritza-sozietateak Otietako zentral zaharreko eraikinean, Leizotz auzoan, ostatu- eta jatetxe-jarduera ezartzeko sinatu beharreko hirigintza antolamenduko hitzarmena.

2.- Hasierako onarpena ematen duen erabakiaren iragarkia eta hitzarmenaren eduki osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta jendaurrean jartzea, hogen eguneko epeaz, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, interesatuek komenigarri irizten dituzten alegazioak aurkeztu ditzaten. Guzti hori, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Zazpigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoari jarraiki. Era berean, Udaletxeko iragarki-taulan eta udal webgunean (www.andoain.eus) ere argitaratuko da iragarkia.

Alegazioak aurkeztuz gero, ebatzi egin beharko dira, eta, hala badagokio, hitzarmena behin betiko izaeraz onartu beharko da. Bestalde, inolako alegaziorik aurkeztu ezean, hitzarmena behin betiko izaeraz onartutzat emango da.

3.- Alkateari ahalmena ematea aipatu hitzarmena eta bertan aurreikusitako helburuak lortzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sina ditzan.

4.- Erabaki hau jakinaraztea Jon Zubiarrain Lasa jaunari.

## 6. Andoingo udalerriko eraikin eta etxebizitzetan energia hobetzeko jarduketetarako dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzea.

Konstituzioko 140. artikulua udalerriei aitortzen dien autonomiaren oinarriaren gainean, Toki





Jardunbideko Oinarriari buruzko apirilaren 2-ko 7/1985 Legeko 4.1.a) artikulua udalerriei bere burua antolatze ahalmena aitortzen die.

Ikusirik 2022ko maiatzaren 18a datan udal kontuhartzaileak emandako txostena eta bertan oinarri hauen xederako espresuki esleitutako partida dagoela ziurtatzen dela.

Ikusirik 2022ko maiatzaren 18a datan hirigintza eta zerbitzuetako administrazio orokorreko teknikariak emandako aldeko txostena.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzordearen 2022/05/26 datako irizpena.

Verdasco jaunak, Hirigintza, Obrak, Ingurumena eta Landaguneko Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Las ayudas que traemos al pleno, se trata de ayudas para la mejora de eficiencia energética, para obras efectuadas en el año 2022, el presupuesto destinado es de 60.000 euros y se dividen en cuatro líneas de actuación, dos de ellas destinadas a comunidades de propietarios, en las cuales se subvenciona la instalación de sistemas de producción de agua caliente sanitaria mediante energía solar térmica y la instalación de sistemas de calefacción y agua caliente sanitaria centralizado con caldera de biomasa.

“Las otras dos líneas de actuación son para propietarios de viviendas particulares. Una de ellas la sustitución de calderas individuales por otras de gas natural de alto rendimiento y la otra línea de subvención es para los cerramientos acristalados de ventanas y puertas exteriores.

“Las cuantías de las ayudas para las comunidades de propietarios son del 10% del coste de la instalación hasta un máximo de 6.000 euros y para los propietarios de viviendas particulares, el caso de la subvención para la instalación de calderas sería una ayuda de hasta 400 euros, la cual se incrementaría en 100 euros más, si se acredita ser jubilado o pensionista o un grado de discapacidad superior al 33% y en el caso de la línea de subvención para las obras de ventanas y puertas exteriores sería hasta el 30% del coste de la inversión, con un máximo de 1.200 euros y se incrementaría, adicionalmente en otros 200 euros más para aquellas personas que acreditarán su condición de jubilado o jubilada, pensionista o grado de discapacidad superior al 33%.”

Idazkari jaunak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Komentatzeagatik, deialdia egin ondoren bidali zitzaizuen korreo elektronikoko bidez zuzenketa bat, 9. Artikuluari dagokiona, proposamen honen arabera, ezabatuko lirarteke 9. Artikuluko a) eta g) eta h) letran bi paragrafo berri eranstean dira.

“Una vez hecha la convocatoria se remitió por correo electrónico una propuesta de modificación en relación al artículo 9 de las bases, en la cual se propone la eliminación de los apartados a) y g) y la incorporación de dos nuevos párrafos en la letra h).

“Zuzenketa bozkatu behar da lehenbizi. Zuzenketa onartuko balitz, jarraian, bozkatuko da irizpena, zuzenketa hori sartuta.

“Al tratarse de una modificación propuesta de modificación de emienda, en primer lugar deberá votarse dicha propuesta de modificación y en el caso de que se apruebe a continuación se votará el dictamen de la comisión con la incorporación de la modificación.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak irizpenaren aldaketa proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

Jarraian, Alkate andreak, aldaketak jasota, irizpena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Andoingo udalerriko eraikin eta etxebizitzetan energia hobetzeko jarduketetarako diru-laguntzen oinarri arautzaileak onartzea.

2.- Administrazio-espeditentea jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal web-orrian argitaratuz eta Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan erakutsiz, 30 eguneko epeaz, interesadunek espeditentea aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko

3.- Espeditentea jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz,



aipatu araudia behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

## **7. Lanpostuen balorazioari buruzko erabaki proposamena.**

Verdasco jaunak, Langileria, Antolakuntza eta Barne Araugintza Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“El pleno de enero de 2018 acordó la creación de una serie de plazas en la RPT, así como la valoración de todos los puestos de trabajo del ayuntamiento. En diciembre de ese mismo año se adjudicó para la prestación del servicio de valoración de puestos de trabajo y la actualización del catálogo de puestos del ayuntamiento.

“En todo este tiempo se ha procedido por la empresa adjudicataria los trabajos objeto del contrato y se han venido realizando en varias ocasiones reuniones de la mesa de valoración, conformada por todos los partidos políticos, el comité de empresa y varios técnicos municipales para analizar la documentación elaborada por la empresa adjudicataria así como las diferentes propuestas presentadas por la parte sindical y la parte política.

“Vistos los informes del Secretario, la Interventora y el Técnico de Administración General de Personal y Prevención, se propone el siguiente acuerdo:

“Aprobar los niveles de complemento de destino y nuevos complementos específicos, con fecha de efectos de 1 de enero de 2020.

“Aprobar el catálogo de funciones de los puestos de trabajo recogidos en la RPT como consecuencia de la valoración de puestos de trabajo.

“Aprobar los nuevos niveles de complemento de destino y puntuaciones del complemento específico.

“Establecer el valor del precio punto en 1,6501€ en base a la propuesta de la empresa adjudicataria del proceso de valoración.

“Aprobar el manual de gestión y valoración.

“Tramitar las modificaciones presupuestarias necesarias para dotar económicamente la valoración y dotar del gasto necesario.

“Crear los complementos personales transitorios necesarios para aquellos cuya suma de complemento de destino y específico hayan quedado por debajo como consecuencia de la valoración de puestos de trabajo.

“Teniendo en cuenta que el acuerdo del pleno de diciembre de 2018 reconocía efectos retroactivos a la valoración de puestos de trabajo, se acuerda establecer la retroactividad a 1 de enero de 2020.

“El pago de la misma se realizará de la siguiente manera. Se establecen pagos a realizar en 5 años a razón de un semestre por año, desde el 2022, hasta el 2026.

“Modificar la RPT con los cambios necesarios derivados de la valoración de puestos de trabajo.

“He leído los puntos correspondientes al acuerdo del dictamen de la Comisión de Personal, posterior a este dictamen se ha modificado y traemos la propuesta de enmienda de modificación del dictamen, concretamente el punto número 8 que hace referencia al pago de esa retroactividad, quedando el pago establecido de la retroactividad antes del 31 de diciembre de 2022.”

Alkate andreak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Lehenik eta behin zuzenketa bozkatu beharko genuke.

“Primeramente tendríamos que votar la enmienda y si esta saliera aprobada se incorporaría al texto y se votaría con el texto incorporado.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Alvarez jaunak, EH Bilduko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Sahiatuko naiz laburra izaten, guztiok dakigu gai honek ematen duela oso luze aritzeko, baina, plena nahiko luze doa eta sahiatuko naiz labur egiten.

“Gaur beste urratsa bat ematen da, ez dut esaten ixten denik, zeren, gauza hauek ez dira ixten, baina bai, ematen da urratsa bat, gure ustez garrantzitsua eta beharrezkoa dena, batez ere, datozen erronkak oso inportanteak direla langileria eremuan eta horretarako, hau ezinbesteko urratsa da.

“Gehiegiz luzatu da azken tramu hau, ez da luzatu berez prozesua horrela eskatzen zuelako, baizik eta,



udal gobernua horrela erabakita, pandemia eta tartean izan da baina bueno, beste gauzetarako pandemia existitu ez den bezala, beste gauza batzuetarako aldiz egon da eta, gai hau utzita egon da, behin eta berriro, mahaï gaineratu dugu gai hau mugitzearen beharra eta gure ustez soilik udal gobernua ezinbestekotzat izan duenean balorazioa martxan jartzea, hartu du gaia eta hasi da mugitzen.

“Berriro ere, presaka jokatu behar izan dugu. Hiru urte geldirik edo, hiru urte apenas urratsik eman den gai bat, azkenean, beti bezala, beste gaiekin gertatzen den bezala, ondoren presa dugu datozelako beste erronka batzuk, lanpostuen estabilizazio, nominaren gaia, abar eta abar...ez.

“Bueno, guk, gai honetan, uste dut erantzunkinez jokatu dugula hasieratik, oposizioan egon arren. Ez dut gogoratuko aurreko udal gobernu nola hasi zituen urratsa hauek, ez zuen halako erantzukizunik oposizioaren aldetik eta nahiko egur jaso zuen gainera. Balorazioan badaude gauza asko ez zaizkigunak gustatzen, hori ebidentea da eta prozesuan zehar horrela adierazi dugu. Sahiatu gara gure ekarpenekin gustatzen ez zaizkigun gauza horiek ahalik eta gehien konpontzen, batetik, aldi baterako osagarri pertsonalekin edo, CPT bezala ezagutzen dugun horiekin osatzen eta bestetik retroaktibitatearen gaia, azken orduko akordio batekin, lortu duguna, hasierako akordio hori hobetzeal.

“Hala ere, badira gai batzuk ezin izan ditugunak behar bezala itxi, azken momentura arte, gaur eguerdira bitarte, lanean egon gara dokumentu baten redakzioan eta ezin izan dugu itxi, lehen esan dudanagarik, berandu jartzen gara eta ondoren presak etortzen dira. Gure ustez, gai bat pendiente geratzen da eta da, kontratu iraunkorra ez duten baina jadanik demostratu direnak, lanpostu estrukturalak direla, ulertzen dugu lanpostu estrukturalak, urtero urtero hor dauden lanpostuak, aldi baterako osagarri pertsonala ezingo dena aplikatu eta hori geratu da zintzilik eta, gure ustez, gai horri heldu behar zaio, ez diogu heldu garaiz, ez gara heldu adostasunera baina, gure ustez konpromezu bat hartu beharko genuke gai hori ere datozen egunetan irteera bat emateko, gu behintzak horretan jarraituko dugu. Hala ere, gure hitza beteko dugu, bai komitearekin emandako hitza, bai udal gobernuari emandako hitza. Guk esa genuen akordioa ematen bazen babestuko genuela proposamena, naiz eta gauza asko ez gustatu, naiz eta prozedura aldetik gauza asko ez gustatu eta nahiz eta, momentu askotan sentitu gu izan dugun esku zabaltasunaren aurrean reziprozidari ez dela izan eta jarraitzen dugu pentsatzen, hala ere, gaur baiezkoa bozkatuko dugu eta biartik aurrera jarraituko dugu lanean zintzilik geratu diren gai horiek konpontzeko, borondatearekin, soluzioak emateko borondatearekin.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Nosotros, por nuestra parte vamos a votar a favor. Ya era hora de que se hiciera la valoración, sobre todo por las plazas de la RPT que no tenían una valoración en sí y estaban un poco pues en el aire. Nos alegra que se haya llegado a un consenso con el comité, que los representantes de los trabajadores y de las trabajadoras, bueno, hayan visto favorable, vamos a decir esta valoración y este acuerdo para la retroactividad y bueno, en realidad, como ellos como parte interesada si están de acuerdo y yo como sindicalista que soy y, teniendo en cuenta, que para mí, es muy importante el que ese llegue a este consenso, por supuesto, nos congratulamos de que haya sido así y, de que al final, se haya llegado a este último acuerdo que era el que estaba pendiente relacionado con el abono, y que finalmente se pueda hacer este año.”

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, efectivamente, creo que todos los grupos hemos hecho esfuerzos para tratar de llegar a un acuerdo, acordado también con el comité y bueno, sobre todo, yo, hoy quiero resaltar esa parte. Hemos conseguido, quizá no sea la valoración deseada por todos, pero bueno, por lo menos somos capaces de aprobarla por unanimidad y, creo que eso es impotante, además, con acuerdo con la parte sindical, que era también lo que nos habíamos propuesto desde el principio. Así pues, trasladar la enhorabuena a todos los grupos políticos.”

Jarraian, Idazkari jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Itzulpen kontua besterik ez da. Hemen bidali den zuzenketa proposamena honetan, jartzen du gazteleraz “se acuerda establecer la retroactividad a partir del 1 de enero de 2020, eta euskaraz jartzen da, atzera eragina ezartzea erabaki zen 2020k urtarrilaren batetik aurrera, gaur erabakitzen denez, gazteleraz



jartzen duenaren arabera, jarri beharko litzateke, atzera eragintasuna ezartzea erabakitzen da.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, ondoren, Alkate andreak zuzenketa proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

**Lehenengoa:** Destino-osagarriaren eta berariazko osagarri berrien maila berriak onartzea. Zerrenda horrek 2020ko urtarrilaren 1 egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

**Bigarrena:** Lanpostuen zerrendan jasotako lanpostuen eginkizunen katalogoa onartzea. Zerrenda hori RRVk egin du, lanpostuen balorazioaren lanaren ondorioz. Proposamen honen eranskin gisa erantsi da. Zerrenda horiek espedientearen daude, baina duten bolumenagatik ez dira transkribatzen.

**Hirugarrena:** Destino osagarriaren maila berriak eta lanpostuen balorazioaren lanaren berariazko osagarriaren puntuazioak onartzea. Horien taula proposamen honen eranskin gisa erantsi da (ez da transkribatzen), eta lanpostuen zerrendako datuak jasotzen ditu.

**Laugarrena:** Puntu-prezioari emango zaion balioa **1,6501€** izango da, balorazio-prozesuaren enpresa esleipendunak egindako proposamenaren arabera, eta alderdi sindikalak alderdi politikoarekin negoziatu ondoren.

**Bosgarrena:** Proposamen honen eranskinean agertzen den Kudeaketa eta Balorazio Eskuliburua onartzea. Eskuliburu horren bolumena ez da transkribatzen, baina espedientearen jasota dago.

**Seigarrena:** Balorazioa diruz hornitzeko beharrezkoak diren aurrekontu-aldaketak izapidetzea eta aurreko paragrafoan aipatutako gastua baimendu eta xedatzea, Gizarte Segurantzari lotutako ordainsari eta kostu gisa. Nominen aplikazio informatikoak dagozkion aldaketak egiteko aukera ematen duenean sartuko da indarrean Lanpostuen Balorazioa.

**Zazpigarrena:** Aldi baterako osagarri pertsonalen zerrenda sortzea, destinoko osagarrien eta berariazko osagarrien arteko aldeak batuta, baldin eta balorazioa egin aurretik jasotzen zizutenak baino txikiagoak badira. Alde horiek modu pertsonalean ordainduko dira, izaera xurgaezina duen aldi baterako osagarri pertsonal baten bidez.

**Zortzigarrena:** Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2018ko abenduaren 20an erabaki zuenez atzeraeraginezko ondorio ekonomikoak aitortzea Tokiko Gobernu Batzordearen 2018ko irailaren 28ko erabakiaren bidez onartutako lanpostuen balorazioari, atzeraeragintasuna ezartzea erabaki tzen da 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera. Horren ordainketa 2022ko abenduaren 31 baino lehen egingo da.

**Bederatzigarrena:** Lanpostuen zerrenda aldatzea, balorazio hori onartzearen ondorioz egin beharreko aldaketak eginda.

## 8. Berezkoak ez diren jarduerak egiteko espedientearen hasiera: itunpeko ikastetxeen kontserbazio eta konponketa gastuak finantzatzea.

Ikusirik, Hezkuntza eta Kulturako Batzorde Irizpenemaileak 2022/06/08ko bileran emandako irizpena.

Ruiz andreak, Hezkuntza eta Kultura Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Esateko bakarrik, itunpeko ikastetxeen kontserbazio eta konponketa gastuak finantzatzeko espediente ireki dela, honekin batera doazen hitzarmenen zirriborroen arabera. Kasu honetan eta, Larramendi Ikastola, La Salle-Berrozpen Ikastetxea eragiten die.

“Decía en euskera que se ha incoado expediente para la el ejercicio de la actividad consistente en financiar gastos en concepto de conservación y reparación de los centros escolares concertados que se han mencionado, conforme a los borradores de convenio que se adjuntan en la misma.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV eta EH Bildu udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta Elkarrekin Podemoseko udal taldearen abstentzioarekin, honako hau erabaki du:

989/2022 zenbakidun Alkatetzaren 2022ko ekainaren 2ko Ebazpenaren bidez, jarraian adierazitako itunpeko ikastetxeen kontserbazio- eta konponketa-gastuak finantzatzeko espediente ireki da, honekin batera doazen hitzarmenen zirriborroen arabera. Jarduera horrek ez du zerikusirik



bereak, eskuordetuak edo transferituak direnekin:

- Manuel Larramendi Ikastola.
- La Salle-Berrozpe Ikastetxea

Jardueraren ezaugarriak eta araubide juridikoa justifikatzeko memoria egin da.

Udal-eskumenen klausula unibertsalaren ondoriozko jarduera, zerbitzu edo prestazioak gauzatzeari buruzko ekainaren 25eko 93/2019 Dekretuaren 7.1 artikuluan ezarritakoa betez, bikoiztasunik ezari buruzko txostenak egin dira.

Ekainaren 25eko 93/2019 Dekretuaren 7.6 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Alkateak osoko bilkurari jakinaraziko dio ikastetxe horien kontserbazio- eta konponketa-gastuak finantzatzeko jarduera hasteko prozedura hasi dela, eta jarduera hori ez dela berezko, eskuordetutako edo transferitutako eskumena.

Adierazitakoagatik guztiagatik, Udalbatzarrari, bertaratutako kide guztien aldeko botoarekin, jakinarazi zaio ikastetxe horiek kontserbazio eta konponketa gastuak finantzatzeko prozedura hasi dela, bereak, eskuordetuak edo transferituak ez diren beste eskumen batzuk baitira, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Berriro ere, Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

